

BERTSO BERRIAK

Itxaso Paia

Pretendiente bila nabil



NIKO MORENO/XDZ

I

Nola larunbat gauez bakarrik utzi ohi nauen koadrilak, mutil gazteen bila dihardu Algortako neskakilak, sakontasunez aztertu ondoren Euskal Herriko mutilak, fundamentuan gehiago dira zulobako jeringilak, zulatutako arrautzak edo arrautz gabeko natilak.

II

Lehenbizikoa Miguel izan zen, iazko San Ferminetan, lehen musua hark eman zidan goxo-goxo Estafetan. Beti zezenez, entzierroez, eta korriedez hizketan, egia esan aditua zen adar kontu guztietan.

III

Bigarrena ezagutu nuen Neguriko Telepizzan, peperonia eta piperra nik gustuko nuen gisan. Laster zita izango genukeen Andra Mariko elizan, ezkondu arte “ez egiteko” asmorik ez balu izan.

IV

Hurrena txirrindularia zen, kaskoa eta kulota; lizentziaturaz abokatua, sukaldaria, judoka, ametsetako printze urdina guapo eta poliglota... Pena bakarra urrun daudela Barkoxe eta Algorta.

V

Ondarrutar bat ezagututa ze gorputza, zenbat arte, lotsarik gabe aritu ginen izerditan blai, jo ta ke. Berez mutila maite nuenik ezin ukatu nezake, dena primeran joan zitzaigun hizketan hasi zen arte.

VI

Hurrengoa zen pilotaria, Abadiñoko piraña, luzean pasa egiten zuen eta laburrean, kaña. Esaten zuten frontoian zela oso atzelari bikaina, zaletasuna frontoietik at mantendu ohi zuen baina.

VII

Bizar luzedun azpeitiarra, Frediren lagun zen Urtzi, ados ez zela neba maiteak oso garbi zigun utzi: “Nire arreba ukituz gero biziko haiz oso gutxi!” Gutunik jaso izan dut baina ez dut berriro ikusi.

VIII

Azken aukera haxe izan zen, San Antonio ala hil, eta santuak *lista-de-esperan* jarri zizkidan *nuevemil!* Orain badakit Durangon nola dagoen hainbeste mutil, eta zergatik kokatu zuten Urkiolatik hain hurbil... baina denak ez direlakoan Mister Been edo Beny Hill, iragarki bat jarri behar dut: “Pretendiente bila nabil.”



DOINUA: Andre txarren bentajak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.